

IRITZIA

UN PHOTO/D. BURNETT



Kurt Waldheim mamua Europako parlamentuan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bi atzapar handi eta itsusi ikusten dira Europako hauteskundeetako emaitzen mapa koloredunei begiratzean. Salviniren Italia, Le Penen Frantzia. Bi atzapar luzeren falangeak, Europar Batasunaren zintzurra estutu nahi eta ezin. “Ez dute lortu”, diote onkeriaz zenbait aholtek. Okerragoa zirudien panoramak inkestei erreparatuz gero. Akaso egia da, alderdi neofaxistek gora egin dute, baina ez Europako parlamentua baldintzatzeko lain. Salbu gara?

Kontua atzaparrak badira, Kurt Waldheim zenarenak gogoratu behar dira la-saitasun mezuak zabaltzen hasi aurretik. 1986, Austriako hauteskunde kanpaina hastear, eskandalua prentsan: argitaratu denaren arabera Waldheim, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi ohia eta alderdi kontserbadoreko hautagaia, naziekin ibili zen II. Mundu Gerran.

Derrigortuta joan zen soldadu, dio Waldheimek; frontean zauritua izan ondoren ez zuen gauza handirik egin, eransten du. Paperek beste zerbait diote ordea: gaztetatik nazional-sozialisten aldeko, 1942an Kozarako (Jugoslavia) partisa-noen masakrean arduradun, 1943an Tesalonikatik (Grezia) milaka judu deportatzen aritua. Gauza ilunak, zikinak, itsusiak, hiltzaile profesionalaren usainekoak. Ruth Beckermann zuzendariak Berlingo zinemaldian zeresana eman zuen iaz *Waldheims Walzer* dokumentalarekin –Tabakalera eman dute duela gutxi–. Lan horretan kontatzen da nola erreakzionatu zuen Austriako gizarteak eskandalua-ren aurrean: hori dena jakin arren, presidente hautatu zuten.

Historiak gaurkotasun erabatekoa du, Europak oraindik garbitu gabe daukan iraganaren berragerpena erakustez gain, ardi larruz jantzitako otsoen kontakti-zuna delako. Nominalki Waldheim ez zen alderdi faxista bateko kide, eta nazi ohia izan arren, milaka herritarren bedeinkapenarekin izan zen Austriako presidente 1992ra arte. Zenbat hautetsi ote doaz orain Bruselara demokrazia besarkatuta eskuin muturra bezain politika oldarkorrak egiteko asmoz? Salviniren eta Le Penen atzaparrak itsusiak dira. Europar Batasunaren neurri konkretu asko ez dira askoz politagoak, marka zuriko alderdiek eginak badira ere. ●

IRITZIA

Europar Batasunak lasaiago arnasten du



ASIER BLAS

Inkestek zentroko koalizioak gehien-go galdu zezakeela auresan bazuten ere, azkenean sozialdemokraten, liberal-demokraten eta popularren arteko koalizioak gehiengo osoari eutsi dio Europako parlamentuan.

Honetan izan du zeresanik partaide-tzak, %51k botoa eman du, orain bost urte baino %8,5 gehiago eskuin muturraren aurkako mobilizazioak eta herrialde batzuetako hauteskunde desberdinen arteko kointzidentziak lagunduta.

Berdean olatua uste baino tamaina txikiagokoa izan da, Alemanian izan da bereziki arrakastatsua, berdeek sozialdemokratei aurre hartuko diote. Danimarkan, Erresuma Batuan eta Frantzia-ian emaitza txukunak izan dituzte ere bai. Berdeak-Europako Aliantza Librea talde parlamentarioak 20 diputatu inguru irabaziko ditu, gutxi-asko Ezker Unitarioak galduko dituenak eta, beraz, Europako parlamentua zentratu egingo da ezkerretik.

Eskuinetik ordea, populismoaren eta euro-eszeptismoaren igoera egon da, nahiz eta ez inkestek iragarri zuten tamainakoa. Italian, Frantzia eta Erresuma Batuan euro-eszeptikoek irabazi dituzte hauteskundeak, baina herrialde horietatik at, Europako mendebaldean ez dituzte espektatibak bete. Ekialdean nazionalista-kontserbadore eta liberal-mendebaldar zaleen arteko lehian ez da sorpresa handirik egon, indarrak orekatuak daude Hungarian izan ezik, Orbanen alderdiak gehiengo osoa lortu du eta. Gauzak horrela, Europako parlamentuko interes gune inportanteenetako bat izango da preso eta erbestean dauden katalan europarlamentarien borroka kargua hartzeko. ●